

Atzo ospatu zen LANBAI 2013 azoka

2013/06/07

Atzo, ekainak 6, 14:45etan, Mondragon Unibertsitateko presidenteak, Javier Sotilek, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuordeak, Ricardo Barkalak, Mondragon Unibertsitateko errektoreordeak, Jon Altunak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendariak, María Ubarrechenak, Mondragon Unibertsitateko I Enplegu eta Formazio Azoka, LANBAI 2013 inauguratu zuten.

Azoka honetan, bisitarien beharrei erantzuteko 4 gunegokitu ziren. Formazio gunea, non Mondragon Unibertsitateko unibertsitate masterren, profesionalentzako formazioaren (MU PLUS) eta goi mailako heziketa zikloen informazioa eskuragarri zegoen; baita ere Alecop-en eskutik lana eta ikasketak partekatzeko zegoen aukera. Enpresa eta erakundeen gunea, 21 standekin, non bisitariak curriculumak utzi eta bertan zeuden ordezkariak piskat hitzegiteko aukera izan zuten. Elkarrizketa gunea, non aurrez hitzordua hartuta zuten 300 pertsonen elkarrizketak egiteko aukera izan zuten, eta beka eta lan poltsa gunea.

Azokak iraun zuen 4 orduetan, 900 bisitari inguru izan genituen.

Lehenengo edizio honek izan duen arrakasta ikusirik, hurrengo urterako bigarren edizioan pentsatzen gaude.

